


Ikasleak: Olatz Rueda eta Irati Uribesalgo
 Arloa: Mundu Garaikidearen Oinarriak
 Taldea: Hizkuntzalariak 31
 Irakaslea: Unai Belaustegi
 Ariketa praktikoa: Industrializazioa 1

Galderak:

- Zer da industria iraultza? XVIII - XIX. mende bitartean Britainia Handian ematen hasi zen aldaketa teknologiko, kultural eta sozio-ekonomikoa da Industria Iraultza. Makineriak eskulan tradizionalak ordezkatzeko aurrera pausua eman zuen produktuen salerosketa azkartuz eta erraztuz. Historialari batzuek Neolitoko Iraultzarekin alderatu izan dute. Mundu ikuskera berri honek izugarritzko eragina izan zuen gizartean, besteak beste hirien nahiz demografiaren ikaragarritzko hazkundera bultzatu zituelako.**
- Azaldu (eskema bidez) industrializazioaren ziklo/fase ezberdinak (Lehen Industria Iraultza, Bigarren Industria Iraultza...)**



- Coriaten testuan irakurri duzuenaren arabera, erantzun:**
 - Nor da egilea?** Benjamin Coriat 1948an jaiotako ekonomista frantses bat da. Nere lanik garrantzitsuenak 2015ean

argitaratutako "le retour des communs" lana da. Bertan komunetako ekonomiaz hitz egiten du jabetzaren ideologia baztertuz. Komunetako ekonomia kolaboratiboa kapitalismoaren alternatibatzat hartzen du.

- **Industrializazioaren zein faserekin (2.galdera) lotuko zenituzke testuan azaltzen diren aldaketak? Arrazoitu.**

- 4. Zer izan zen Ludismoa? Azaldu.** 1810eko hamarkadaren hasieran Ingalaterra sortu zen Industrializazioaren aurkako langile mugimendua da Ludismoa. Ned Ludd izan zen mugimenduaren buruzagi, hortik "Luddismo" izena. Ehungintzako langileen mugimendua izan zen bereziki, makina berriek haien lanpostua ordezkatzeko zutena. Protesta bezala, ludistek, haien lana ordezkatzeko zuten makinak apurtzen zituzten.
- 5. Zer da Kartismoa? (BH, 1838/48). Azaldu.** Kartismoa 1838-1845 urteen bitartean Erresuma Batuan eman zen langile mugimendua da. Langile hauen helburua, langileen eskubide politikoak lortzea izan zen. 1838. urtean Londreseko Langile Elkarteak Herriaren Gutuna idatzi zuen, bertan, gizonen sufragio unibertsala, ezkutuko botoa eta hauteskundeetarako barruti berdinak sortzea eskatzen zuten besteak beste.
- 6. Zer iruditu zaizu Bertold Brechten poema?** Langileriak jasaten dugun zapalkuntzarik gabe gure gain dagoen burgesiaren kapital metaketak ezinezko lirake, honenbestez bat gatoz langilearen zalantza eta kontzientzia kritikorekin. Nabaria da garaiko proletarioaren kontzientzia eta langileriaren mugimendua eta aldatzeko nahiak zabalak eta anitzak zirela, gaur egun ere badirela eta oraindik ere klase elkartasunaren baitan lanean eta borrokan jarraitu beharrean gaudela uste dugu.
- 7. Iritzi kritikoa (demostratu testua irakurri duzula + harremanetan jarri galderekin eta egungo egoerarekin).**

Industrializazio prozesuaren eta honenbestez eskutik lotuta doakion kapitalismoaren XX. mendeko gorakadarekin, proletarioaren lan baldintzak aldatu ziren; beti ere beren mesede ekonomikoaren alde jokatu duten erlojupeko lana, kate-lana... Historian zehar proposatu eta aurrera ateratu diren lan antolakuntzekin kritikoa gara, besteak beste testuan azaltzen diren taylorismoarekin eta Fordismoarekin. Langile klasearen mesedetara jokatu duten lan baldintzak behar direla uste dugu, kapital metaketaz arduratu eta errentabilizatuko den burgesia etsai du langileriak, kate-lanen zein erlojupeko lanen menpe bizi den langileriak prekaritatea jasaten du XXI. mendean oraindik ere, eta uste dugu historian eman diren akats guztiak abolituko lituzkeen langile iraultza behar zela bai 70ko hamarkadan eta baita orain ere, gure gainera jarriko den klase burgesa abolituz eta fabriketan zein enpresetan langileriak bere lan-baldintzen alde egiteko aukera izanez, eta ez aldiz orain unibertsitatean garbitzaileekin gertatzen ari denaren antzera. Lan baldintzak, soldadak eta lan-orduak ez dira duinak, eta hitzarmen baten alde borrokatuz 5 urte daramatzen lan feminizatuetako sektore honek greba eskubidea aldarrikatzen eta protesta beste batzuen "osasun" kontuei kalte egiten hasten denean langile klase osoaren batura eta antolakuntza eman beharrean borrokak aurrera jarrai dezan, beste langile batzuk kontratatu eta unibertsitateko korridoreak garbitzeko dei egiten du errektoreordetzak. Hau ere proletarioaren lan baldintza xumeen 2020ko adibide paregabea eta gertakoa dela uste dugu, finean, lanean egin beharreko ekintza aldatu bada ere, baldintza eta eskubideak ez baitira aldatu, eta hori ezingo da burgesia baten menpe bizi garen bitartean abolitu.